

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

NUALA ELKARTEA

Pandemia garaian etxean sartuta egon behar izan dugu guztiok eta teknologiak pisu garrantzitsua hartu du. Teknologiak aukera zabalak eskaintzen ditu, baina horretarako erabiltzen jakin behar da.



elkarlanean

Nire lagun
Joxe Marik traste honen bidez
hitz egiteko proposatu dit.
Urrun bizi da eta orain ezin dugu
elkartu. Baina nik ez daukat
ideiarik, Ane.

Lasai, Patakon. Teknologia
berriak ez dira zuk uste bezain
zailak. Pazientzia eta ondo gidatuko
zaituen norbait izanez gero,
aukera handiak
eskaintzen dituzte.



Ikusi, Patakon.
Nualako gure lagun Mirariri
deituko diogu, zuk bideodeiak
egiten ikasteko.

Bideodeiak?
Izena bera ikastea
kostatzen zait...



Kaixo, bikote!
Zer zabiltzate? Iker eta biok
jolasean ari ginen
tabletarekin.

Lehen etxeko lanak
egin ditugu eta orain
jolasten ari gara.



Ni Patakoni tableta
erabiltzen erakusten ari naiz,
bere lagun Joxe Marirekin bideodeia
egin dezan.

Baina alferrik ari da,
nik ez baitut sekula
ikasiko.





Hori ez da egia, Patakon!
Noski ikasiko duzula!
Teknologiak denon neurriko aukerak ditu.
Garrantzitsua da aukera horiek topatzen
eta erabiltzen ikastea.

Nualan konturatu gara
teknologia berriek sekulako
garrantzia hartu dutela
pandemia garaian.



Aniztasun funtzionala
daukaten pertsonentzat ere
garrantzitsua da teknologia.
Baina horretarako trebakuntza
pixka bat behar dute.





Horregatik Nualan proiektu berri bat jarri dugu martxan, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoei teknologia berriak ondo erabiltzen laguntzeko.

Ze interesgarria, Mirari! Barkatuko didazu, baina orain utzi egin behar zaitut, nire lagun Joxe Mari bideodeia egiten ari zait eta!



NUALA ELKARTEA

Elgoibarko eta Mendaroko familiak batzen dituen elkarte da Nuala. Aniztasun funtzionala eta gaitasunen dibertsitatea daukaten haurren eta gazteen familiek eta lagunek osatzen dute.

Helburu nagusia gaitasun desberdinak dituztenak ikusaraztea eta jendartean haientzat tokia egitea da, eskubide eta aukera berak izan ditzaten.

2016an sortu zuten Nuala Elkartea. Hilabete batzuk lehenago, Elgoibarko Udalak gonbidatuta, Nuala Gardner eskoziarra herrian egon zen bere errealitatearen berri hitzaldi bat emateko. Liburu batean eta filma batean jaso dago autismoa duen bere semearen alde egindako bidea. Nualaren bizipenek piztu zuten elkartearen sorrera eta hortik jarri zioten izena.



Gaur egun nagusiki aisialdiaren alorrean lan egiten dute Nualakoek. Biltzen dituzten familietako haurrek –gehienak autistak– traba handiak dituzte aisialdiko eskaintza orokorrean beren tokia topatzeko eta Nualak haien neurriko aisialdi eskaintzak prestatzen ditu.



Santa Ana Kalea, 17- 3ªA, Elgoibar, Gipuzkoa
 Telefonoa: 628512095
 info@nualaekarte.org